

DEIALDIA

SAN SEBASTIÁN
GASTRO-
NOMIKA
Donostia (Euskadi)

Egunak: 2015eko urriak 5-7.

Lekua: Donostiako Kursaal Biltzar Jauregia. Donostia (Gipuzkoa).

Ordutegia: 10:00-20:00.

Izaera: profesionala.

Izena emateko epea: osteguna, 2015eko uztailak 23a.

Parte-hartze kostua: 125 € + BEZa

Azokaren web gunea:
www.sansebastiangastronomika.com

Informazio gehiago: Tel.: 945 003 240
Begoña Sevillano: bsevillano@hazi.eus

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte-hartze eredu

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate fitxa

Aurten, 2015ean, XVII. edizioa beteko du San Sebastian Gastronomikak, mundu mailan goi mailako sukaldaritzaren erreferentzia den biltzarrak. Ezinbestekoa bihurtu den biltzar hau **urriaren 5tik 7ra** izango da aurten, eta Singapur eta Hong Kong izango dira hiri gonbidatuak.

2015eko edizio honetan, **biltzarrarekin paraleloan egingo diren hainbat ekintza** antolatuko ditu Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, **Euskadiko kalitateko elikagaiak eta edariak komertzializatzeko eta sustatzeko.**

GASTRONOMIKA 2015 azokaren izaera

Erakusketa eremua: 5.000 m²

Sektorea: gastronomia

Maiztasuna: urtean behin

Azokaren web gunea: www.sansebastiangastronomika.com

Erakusketariaren profila:

Ondorengo produktuen estatuko eta nazioarteko fabrikatzaile eta banatzaileak:

- Urak; mixerrak; garagardoak; ardoak; cavak; edari biziak; haragi-produktuak eta produktu eratorriak; esnekiak eta eratorriak; itsasoko produktuak; olioak; ongailuak; kafeak; Premium produktuak; profesionalen arropa; ostalaritzarako eta goi mailako sukaldaritzarako ekipamendua; erabilera bakarreko produktuak eta irtenbide informatikoak.

Bisitariaren profila:

Ostalaritzako, jatetxeetako eta azalera handietako erosketa arduradunak; elikadura sistemaren hainbat operadore; saltoki espezializatuak; eta biltzarkide, gastronomia kazetari zein kritikariak, besteak beste.

SAN SEBASTIAN
GASTRONOMIKA





Parte-hartze eredua

[A\) Erakusketa gunea](#)

[B\) Showcooking gunea](#)

[C\) Basque Culinary Center gunea](#)

Aurreko urteetan ez bezala, 2015eko edizio honetan, stand partekatu batean euren produktuak erakusgai jarri parte hartu nahi duten enpresen produktuak sustatzeko hainbat ekintza antolatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, HAZIren bitartez.

[A\) Erakusketa gunea](#)

Gune partekatua da, eta HAZIk antolatu eta koordinatutako agenda baten arabera jarriko dituzte enpresek euren produktuak ikusgai. Enpresa bakoitzak jardunaldi oso batez edukiko ditu bere produktuak ikusgai. Zozketa bidez esleituko zaio enpresa bakoitzari dagokion eguna, parte hartuko duten produktuak aintzat hartuta.

[B\) Showcooking gunea](#)

Enpresa batzuek planteatutako beharrei erantzuteko, gure gastronomia ezagutzera emateko eta dastatzeko gune bat antolatzearen aldeko apustua egin du Eusko Jaurlaritzak edizio honetan. Gune horretan, bi sukaldarik dastatzera emango dituzte enpresa parte-hartzaileen produktuak, Eusko Jaurlaritzaren erakusketa gunean, produktu eta enpresa bakoitzeko programatutako paseen bidez.

[C\) Basque Culinary Center gunea](#)

Basque Culinary Center-ek kudeatutako gune bat da, eta A ataldean adierazitako Eusko Jaurlaritzaren Erakusketa Guneko produktuekin prestatutako 150 otordu eskainiko dira egunero.

Basque Culinary Centerrek gune horretan egindako menuak San Sebastian Gastronomika Biltzarraren antolatzaile ofiziala den El Diario Vasco egunkarian egingo diren txertaketen bidez sustatuko dira. Menu horietan, zehatz-mehatz identifikatuko dira erabilitako produktuak, kalitate markarekin halakorik balego eta/edo enpresaren izenarekin.

Menu horietarako produktu kantitateak HAZIk kudeatuko ditu, Basque Culinary Centerrek egindako produktu aukeraketaren arabera.

Produktuen kostua HAZIk hartuko du bere gain.





Parte-hartze eredua

D) Dastatze artistikoa

E) Gosariak Euskadiko kalitateko produktuekin

D) Dastatze artistikoa

Mikel Garaizabal enologo eta sommelierak eta bere artista taldeak Euskadiko produktuen dastatze berritzaile eta dibertigarriaren ikuskizuna eskainiko dute.

Elikagai eta edarien dastatzea hainbat diziplina artistikorekin uztartuko da: txakolina, Arabar Errioxako ardoa, sagardoa, olioak eta Euskadiko kalitateko produktuak, oro har, antzerkiarekin, musikarekin eta pinturarekin, besteak beste. HAZIk kudeatuko ditu dastaketan parte hartuko duten produktuak, enologoak aukeratutako produktuen arabera.

Dastatzean, enpresen marka ez da egongo ikusgai, baina presente egongo da produktuak eta elementuak sustatzeko erakusketa baten bidez.

E) Gosariak Donostiako hoteletan, Euskadiko kalitateko produktuekin

HAZIk eta parte hartzen duten hotelek hotel batzuetako gosarietan eskaintzeko moduko produktu baliodunak/optimoak hautatuko dituzte. Hotelen hautaketa Biltzarrera etortzen diren beste lurraldeetako biltzarkide eta sektoreko profesionalen ostatuaren arabera egingo da.

Parte-hartze baldintzak eta kostua

Azokara joateko konpromisoa

Euskadin ekoiztutako produktuak

Ebaluazio inkesta

Parte-hartze kostua: 125 € + BEZa (%21)

Egoitza Euskadin daukaten eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen** enpresek bakarrik parte hartu ahalko dute ekintza hauetan.

- Enpresaren ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; **beraz, ekintzan parte hartzeko aukeraren onarpena jakinarazi ondoren, ezingo da baja eman.**
- Enpresek derrigor egon beharko dute bertan, ekintzetarako antolatutako agendaren arabera.
- Erakusgai jarriko diren produktuak **Euskadin ekoitziak** izango dira. Ez da beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztuko, inolaz ere.
- Mostradoreari kasu egin, jakinarazitako ordutegian.
- Erakusketa amaitutakoan, behar bezala jasoko dira produktu guztiak, eta jaso zireneko baldintzetan itzuliko dira standeko elementu guztiak.
- **Ebaluazio inkesta** egin; ekintzak amaitutakoan, inkesta bete eta HAZIra bidaliko da.

Ez badira parte-hartze baldintzak betetzen, dagokion penalizazioa aplikatuko da.

Parte-hartze kostua:

San Sebastian Gastronomika Biltzarraren edizio honetan parte hartzearen kostua: **125 € + BEZa (%21a).**

Euskadiko kalitate-marka ziurtatu ofiziala erakusgai jartzen duten enpresei deskontu bat aplikatuko zaie, eta **75 € + BEZa (%21a)** ordaindu beharko dute.

Parte-hartze kuota ordainketa bakar batean ordainduko da. Faktura eskaera onartu ondoren egingo da.

OHARRA: Kuotak ondorengo ekintzetako parte-hartze segurua biltzen du:

- Erakusketa gunea (A).
- Showcookinga (B).

Ez da bermatzen enpresa guztien parte-hartzea ondorengo ekintzetan:

- Basque Culinary Centerrek kudeatutako gunea (C).
- Dastatze Artistikoa (D).
- Gosariak Donostiako hoteletan, Euskadiko kalitateko produktuekin (E).

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate fitxa, behar bezala beteta

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: 2015eko uztailak 23a

Parte hartu nahi baduzu, **leku-kopurua mugatua denez**, izen-emate fitxa bete eta ordainketa egiaztagiarekin batera ondorengo helbide elektronikora lehenbailehen bidaltzea gomendatzen dizugu: **bsevillano@hazi.eus**

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate dokumentuen jasotze hurrenkerari jarraituz egingo da. Zure eskaera kontuan hartzeko, ondorengo dokumentu hauek bidali behar dituzu, posta elektronikoz, lehen adierazitako helbidera:

1. Honekin batera doan eskaera-orria, behar bezala beteta.

Fitxa honetatik transkribatuko dira datuak, zehatz-mehatz, dagozkion sustapen ekintzetarako. Beraz, enpresa erakusketariaren izena edo helbide soziala eta izen komertziala gainbegiratzea gomendatzen dugu.

2. Izen-emate kuotaren ordainketaren egiaztagiria.

Ordainketa transferentzia bidez egingo da, ordainketa bakar batean:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + GASTRONOMIKA 2015".

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900, HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA). Laboral Kutxaren Bic-a: CLPEES2MXXX.

Izena emateko azken eguna: osteguna, 2015eko uztailak 23a.

Izen-emate fitxa

GASTRONOMIKA 2015

Izen komertziala:

Izen soziala:

IFK:

Nek. eta Elik. Ind. Erregistroa (RIA):

Helbidea:

P.K.-Herria:

Probintzia:

Tel:

E-mail:

Fax:

Web:

Enpresak azoka honetarako duen arduraduna:

Sakelako telefonoa:

Ikusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Erakusmahaiaren errotulua:

Data, sinadura eta enpresaren zigilua: